

# BIDE PUBLIKOAN TERRAZAK ETA MAHAITXOAK JARTZEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

## 1 artikulua. Xedea

1. Ordenantza honen xedea bide publikoan terrazak mahaitxoak edo barrikak eta elementu osagarriak (eguzkitakoak, alboetako babeskiak, berogailuak etab.) jartzeko araudi tekniko eta juridikoa ezartzea da.

2. Aurreko atalean zehaztutako ondorioetarako soilik, terraza, mahaitxo edo barrikak jotzen dira ostalaritzako legezko jardueretan, hala nola, jatetxe, kafetegi eta antzekoetan, aldi baterako osagarri gisa erabiliko diren mahai eta aulkiak.

3. Jarduera lizentziaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoei emango zaie horretarako baimena.

## 2. artikulua.

Ordenantza hau erabilera publikokoak diren udalerriko toki guztiei aplikatuko zaie (bide publikoa, espazio libreak, berdeguneak, etab.), titulartasun publikoko zein pribatukoak direla. Erabilera publikokoa izatearen baldintza, egitatezko egoerak eta indarrean dagoen planeamenduko zehaztapenek zehaztuko dute.

## 3. artikulua. Lizentzia aldeztatik eduki beharra.

Titulartasun publiko nahiz pribatuko espazio publikoetako instalazio horiek erabilera komun eta bereziko kategoria juridikoa dute, eta kasu bakoitzean erabilpen horretarako aldeztatik lortutako udal lizentzia edukitzea beharrezkoa izango da. Lizentzia hori ordenantza honetan oinarrituz emango da.

## 4. artikulua. Lizentzia ukatzeko arrazoiak.

1. Dagokion udal organoak terrazak jartzeko lizentziarik ez ematea erabaki ahal izango du, honako kasu hauetan:

- Bide segurtasunerako kalteak sortarazten baditu (ikuspena gutxitu, gidariari arreta galarazi, etab.) edo oinezkoen, elbarrien, haur aulkitxoaren eta abarren zirkulazioa nolabait eragozten badu.
- Ondoko establezimenduei kalteak sortaraztea (eskaparatea oztopatzea, establezimendura sartzeko lekua murriztea, ebakuaziorako arazoak, etab).
- Ingurunearekiko desegokia edo bat ez datorrena baldin bada, edo hiri paisaiaren irakurketa zuzena eragozten badu.

## 5. artikulua. Ibilgailuak dabiltzan kaleetako espaloietako instalazioak.

1. Espaloian gutxienez 2 m-ko tartea geldituko da libre.

2. Mahaitxoek ez dute inola ere inguruko finketarako sarbidea eta oinezkoen joan-etorria galarazi edo eragoztiko, eta ezin izango dira oinezkoen pasabideen parean, jende asko ibiltzen den tokietako larrialdi-irteeren parean edo atarien parean jarri.



3. Terrazaren espazioak ez du jarduera nagusiko establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko, **ondoan edo parean dituen merkataritzako lokalen** edo gainerako lokalen idatzizko baimenik ez badu behintzat, eta etxebizitza eta gainerako lokaletara igarotzeko bidea ez dute oztopatuko.

4. Establezimendua eta mahaitxoak jarriko diren lekuen artean kotxeak pasatzen diren biderik ezin du egon.

6. artikulua: Oinezkoentzako kaleetako instalazioak.

1. Oinezkoen eremu edo kaleetan topagune publikorako espazioak nagusituko dira. Horretarako, oinezkoen pasoa eta beraien segurtasuna bermatuta geratu beharko dira.

2. Terrazaren espazioak ez du jarduera nagusiko establezimenduaren fatxadaren luzera gaindituko, **ondoan edo parean dituen merkataritzako lokalen** edo gainerako lokalen idatzizko baimenik ez badu behintzat, eta etxebizitza eta gainerako lokaletara igarotzeko bidea ez dute oztopatuko.

7. artikulua. Plaza eta gune libreetako instalazioak.

1. Plaza Nagusian ezin izango da inolaz ere terraza, mahaitxo edo barririk jarri.

2. Plaza eta gune libreetan mahaitxoak eta terrazak jartzeko eskaerak kasuan kasuko berezitasunen arabera erabakiko dira. Nolanahi ere, kontuan izan beharko dira zehaztapen orokor hauek:

- Lorategiz hornitutako eremuak, jolas-esparruak eta atsedeenlekuak errespetatuko dira.
- Ez da oinezkoen pasabidearen arintasuna oztopatuko.
- Eremu horietan bide publikoa erabiltzeko lizentzia eskatu ahal izango duten bakarrak izango dira establezimenduaren fatxadaren aurrealdeak eremu horietara ematen duten lokalen titularrak.
- Gutxienez 3 metro utzi beharko da mahaien eta mahaien jabe den establezimenduaren pareko fatxaden artean.
- Erdiko eremu bat erabiltzeko eskabide bat baino gehiago badaude, establezimendu ezberdinek hartuko duten azalera proportzioaren arabera banatuko da, hau da, establezimendu horiek publikorako esleituta duten eremuaren arabera.

8. artikulua. Estetika.

1.- Mahai eta aulkietarako, aluminioa eta egurra lehenetsiko dira, eta kolore neutroak. Inola ere ezingo da erabili dagokien markaren kolore biziko bereizgarriak dituzten publizitateko plastikozko altzariak. Mahaiek eta aulkiek gomazko babesgarriak izan behar dituzte hanketan, ahal den neurrian zaratak arintzeko eta bizilagunei ahalik eta traba gutxien eragiteko. Aise pilatzeko modukoak izango dira, bilduta daudenean ahalik eta espazio gutxien okupa dezaten.

2.- Eguzkitakoek oihalezkoak, marrazkirik gabeak eta kolore bakarrekoak izan behar dute. Ezingo dira kolore deigarriak erabili, eta suaren aurkako erreakzioa m<sup>2</sup> motakoa izango dute. Eguzkitakoek ezingo dute gainditu terrazaren hedadura, oinplanoko proiektzioan, ezta inolako itxi tura bertikalik eduki ere. 2,20 m-ko altuera utzi behar dute libre, gutxienez. Euskarri finkorik gabe eta zoruari lotu gabe ezarri behar dira, aise garraia tzeko moduko kontrapisuetan bermatuta.



3.- Terrazaren alboetan manparak ezarri ahal izango dira, haizetik babesteko, baina egunero desmuntatu eta establezimenduaren barruan gorde beharko dira. Zoruari lotu gabe ezarriko dira, eta gehienez 1,60 m bitarteko altuera izan behar dute.

4.- Manparek beira gardenekoa izan behar dute altueraren %50, gutxienez. Okupaziorako baimendutako espazioa hiru aldetatik zedarritu ahal izango da. Laugarren aldeak, berriz, irekita eduki behar du luzeraren % 50, gutxienez.

9. artikulua. Lizenzia eskaera.

Eskaerak Herritarren Arreta Bulegoan aurkeztu behar dira, honako agiri hauekin batera:

1. Eskaera orria, eskatze diren datuak behar bezala beteta eta eskatzailearen sinadurarekin. Eskatzaileak establezimenduaren lizentziaren titularra izan behar du.

2. Establezimenduak jartzeko eta irekitzeko lizenzia eduki beharko du eta udal zerga eta tasak ordainduta izan beharko ditu. Hori ofizioz begiratuko du udalak.

3. Lokalaren kokapena zehazten duen plano 1:100 eskalan gutxienez (kartografia ofizialeko oinarrien arabera), xehetasun hauek jasotzen dituena: Instalazioak okupatutako espazioa, mahai eta aulkien banaketa, elementu osagarriak (eguzkitakoak, toloak, alboetako babeskiak, etab), fatxadaren luzera eta geratzen diren gunen libreen zabalera. Aipatu beharko dira, halaber, inguruan izan daitezkeen edozein elementu (trafiko-seinaleak, zuhaitzak, zutabeak, bankuak, hiri-altzariak, e.a.) eta instalazioek eraginda gerta daitezkeen udal zerbitzuak (ura, saneamendua, gasa).

4. Mahai eta barriken diametroa, gehienez, 80 zentimetrokoa izango da. Ogitartekotarako eta plater konbinatutarako lizenzia duten establezimenduen kasuan, baimendutako gehienezko luzera 1,20 zentimetrokoa izango da mahaietan beti, eta 4 metroko distantzia errespetatzen denean beti ere.

10. artikulua. Erabakia.

1. Ordenantza honen arabera lizenzia eskatu ondoren, eta txosten tekniko eta juridikoa aztertu eta gero, dagokion udal organoak erantzun egin beharko die aurkeztutako eskaera guztiei 2 hilabeteko epe barruan.

2. Lizenzia-agirian honako datu hauek azaldu beharko dira: Instalazioak bete beharreko baldintzak, okupatuko den espazioa, mahai eta aulki-kopurua, lizenzia indarrean izango den epea eta beharrezkoak irizten diren beste zenbait berezitasun.

3. Eskatutako lizenzia ematea ez dela egokia irizten bada edo eman beharreko lizentziak eskatutakoarekiko aldaketaren bat badu, Udalak epe bat emango dio eskatzaileari ondo deritzon alegazioak egin ditzan.

11. artikulua. Lizenziaren baldintzak.

1. Beti ere ulertu behar da lizentziak jabetza eskubidea salbu utzita eta beste inoren eskubiderik kaltetu gabe emanak direla. Nolanahi ere, ezingo da lizenzia hauek aitzakiatzat hartuz jarduera gauzatzerakoan onuradunak eragin dituen erantzukizun zibil edo penalak saihestu edo gutxitu.

2. Baimendutako mahaitxoak bakarrik jarri ahal izango dira, eta baimendutako lekuan bakarrik.

3. Edozein aldaketa egiteko beste eskaera bat aurkeztu beharko da eta dagokion baimena lortu.



4. Udal lizentzia beti behin-behinekoa izango da. Dagokion udal organoak trafikoa, urbanizazioa edota interes orokorreko beste edozein arazo dela eta, jarritako mahaia bide publikotik besterik gabe kentzeko agindua eman dezake, bere titularraren kontura eta horri inolako kalte-ordainik ordaindu gabe.

5. Halaber, lizentziaren baldintzak aldatu edo lizentzia bera indarrik gabe utzi dezake udalak, plaza itxien moduko tokietan, edo plazaren forjatuaren aldean etxebizitzaren behealdearen forjatua oso behean gelditzen delako kexak jasotzen direnean, eta, halaber, beste edozein arrazoi dela medio auzotarrei eragozpenak sortarazten zaizkiela egiaztatzen denean.

## 12. artikulua. Tasa.

1. Lizentziaren jabeak dagokion tasa ordaindu beharko dio Udalari, zerga-ordenantzak ezarritako kopuruan eta eran.

## 13. artikulua. Lizentziaren iraupena

1. Iraupen ezberdineko lizentziak eman ahal izango dira:

- Urte batekoa.
- Herriko Festetarako.

2. Lizentzia iraungitakoan, interesdunek baimena berritzeko eskatu beharko dute:

- Aurreko denboraldiko lizentzian aldaketarik egin nahi ez bada, nahikoa izango da aurreko lizentziaren titularrak idatziz nahi hori azaltzea.

- Aldaketak egin nahi badira, eskaera berri bat egin beharko da, Ordenantza honetan adierazita bezala.

## 14. artikulua. Instalatzeko baldintzak.

Lizentzia lortu ondoren titularrak Udaltzaingoarekin harremanetan jarriko da, horiek zehaztuko diotelarik lekuan bertan zein izango den okupa daitekeen gehieneko espazioa.

## 15. artikulua. Orduetgia.

1. Jarduera nagusiak duen orduetgia alde batera utzita, mahaitxo edo terrazen orduetgia honako hau izango da:

Bide publikoan mahaitxoak jartzeko orduetgia:

— Asteleheneratik ostiralera: 8:30 h.

— Larunbatetan, igandeetan eta jai egunetan: 09:00 h.

Bide publikoan mahaitxoak kentzeko orduetgia:

Udan:

- Lan egunetan; 24,00 h.
- Jai bezperan: 02,00 h.

Urteko gainerako egunetan:

- Lan egunetan: 23:30 h.
- Jai bezperan: 01,00 h.



Udako denboraldia izango da uztailaren 1etik Euskal Jaiak bitarteko garaia.

#### 16. artikulua. Instalazioaren titularraren betebeharrak.

1. Aurreko artikuluan ezarritako ordua iristen denean, mahaitxo horien jiran eserita aurkitzen den jende guztiak altxatu beharko du eta instalazioaren titularrak baimendutako material guztia jaso beharko du.
2. Udalak emandako lizentzia-orria eta krokisa jarri beharko dira establezimenduaren sarrerako atean, bai erabiltzaileek, bai udaltzaingoak ikusteko moduan.
3. Lizentziaren jabeari dagokio okupatutako eremua behar bezain garbi edukitzea. Instalazioaren titularrak erabiltzeko baimenpean dauden zorua garbi, txukun, apain eta segurtasun neurriak betez eduki beharko ditu, horretarako beharrezkoak diren baliabide guztiak, paperontziak, hautsontziak, e.a. erabiliz.
4. Instalazioaren jabeak gainontzeko auzotarrek lasai egoteko duten eskubidea errespetarazteaz arduratu behar du, eta ez du iskanbila, sesio edota zaratarik onartuko, arreta berezia ipiniz gaueko 22:00etatik aurrera.

#### 17. artikulua. Arau hausteak.

Ordenantza honen ondorioetarako arau hausteak arin eta larrietan sailkatzen dira:

##### 1. Hauek dira arau hauste arinak:

- a) Inguruko bizilagunei eragozpenak sortzea.
- b) Terraza edo mahaitxoak hartutako lekua behar bezain garbi ez edukitzea.
- c) Terraza edo mahaitxoak hartutako lekua, horiek gorde ondoren, behar bezala garbituta ez uztea.
- d) Ez jaso mahai eta aulkiak bide publikotik.
- e) Ordenantza honetan ezarritako ordutegia ez betetzea.
- f) Lizentziaren beste edozein baldintza edo Ordenantza honetan jasotako aginduren bat ez betetzea.

##### 2. Hauek dira arau hauste larriak:

- a) Lizentziak baimendutakoa ez den leku edo espazioa hartzea.
- b) Lizentziak baimendutako mahaitxo eta aulkiak baino gehiago jartzea edota bertan aurreikusten ez diren elementuak jartzea.
- c) Mahaitxoak, terrazak eta bestelako elementu osagarriak lizentziarik gabe jartzea edo baimendutakoak baino mahaitxo gehiago edo handiagoak jartzea.
- d) Musika-tresnak edo bozgorailuak jartzea.
- e) Zigor espedienteari hasiera eman aurreko urte betean bi arau-hauste arin eginak izatea eta horregatik ebazpen irmo bidez zigorra ezarria izatea.

#### 18. artikulua. Zigorrak.

1. Ordenantza honetako arau-hausteak direla-eta, eskala honen arabera ezarriko dira isunak:
  - a. Arau-hauste arinak: Ordenantza honen lehen arau-haustea ikusiz gero, hitzez ohartaraziko zaio dagokionari. Arau-haustea errepikatuko balitz, 90 eurotik 300 euro arteko isuna jarriko da.
  - b. Arau hauste larriak: 300,01 € eta 900 € arteko isuna.



19. artikulua. Lizentzia kentzea.

Urte beteko epean bi arau-hauste larri egin eta horregatik ebazpen irmo bidez zigortua izateak lizentzia kentzea eta bi urteko epean beste lizentziarik ez ematea ekarriko du.

20. artikulua. Ordezko betearazpena.

Instalazioaren arduradunak ez badu bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal agindua betetzen, Ordenantza honetan jasotako kasuetan, Udalak instalazio guztiak kendu eta udal biltegia eramango ditu, biltegitik atera ahal izateko sortutako gastuak ordaindu beharko dituelarik jabeak, hala ezartzen baitu Administrazio Prozedura Erkidearen otsailaren 26ko 30/1992 Legearen 98. artikulua.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik emandako lizentziak, bere baldintzen arabera egikaritutako dira, iraungitzen diren arte.

Bigarrena.

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik aurkeztu eta erabaki gabe dauden eskaerak Ordenantza honetan araututakoaren arabera erabakiko dira.

## AZKEN XEDAPENA

1. Ordenantza honen testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera hamabost egun baliodun igarotzean hasiko da ondorioak sortzen ordenantza hau.

ALKATEAK,

Behin behineko IDAZKARIAK,

